

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4766

IRAGARKIA, 2025eko urriaren 31koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «2,9 MWn / 3,471 MWp FV Argantz on instalazio fotovoltaikoa» izeneko proiektua, Iruña Okako udal-mugartean (Araba), onura publikokoa dela deklaratzeko.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluaren, Energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) aurreikusitako ondorioetarako, testu horren azken xedapenetako lehenengoan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da proiektu hau, eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta indibidualizatuarekin batera:

- Eskatzailea: Fotovoltaica Comución II, SL, IFZ: B05312525.
- Eskaera: instalazioa onura publikokoa dela deklaratzeko.
- Xedea: teknologia fotovoltaikoaren bidez energia elektrikoa sortzea.
- Erreferentzia: 01 GEY 202500029.
- «Instalazio fotovoltaikoa, 2,9 MWn / 3,471 MWp FV Argantz on».
- Eraginpeko udal-mugartea: Iruña Oka.
- Aurrekontua: 1.687.388,07 euro.

Proiektuak aurretiazko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena ditu, Deskarbonizazio zuzendariaren 2025eko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez emanda.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau, eta, batez ere, lurjabeak jakitun egon daitezkeen (lurjabeen zerrenda iragarki honen amaieran dago jasota), hain justu ere proiektua aztertzei aukera izan dezaten Industria Administrazioari Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Gasteizko Samaniego kaleko 2an), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioari buruzko apartatuan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta aipatutako tokietan egokitzen diren alegazioen bina ale aurkezteko, hogoita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 31.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.

ERANSKINA

ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

«ARGANTZON» EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA, IRUÑA OKAKO UDAL-MUGARTEAN (ARABA)

Zk.	Udalerria	Pol.	Lurzatia	Katastro-erref.	Zerb. lurpeko pasabidea (m²)	Zerb. aireko pasabidea (m²)	Gainazaleko okupazioa (m²)	Lurpeko linearen luzera	Aireko linearen luzera	Aldi baterako okupazioa (m²)	Jabeak
1	Iruña Oka	1	287	2601028700000000000HX	9,60	5	2,65	4	5	312,29	Lopez de Gauna Saenz de Ormijana, Francisco
											Lopez de Abechuco Saenz de Ormijana, J.Maria